IBERDROLA

ZERBITZUEN DESKRIBAPENA
GASAREN MANTENTZE ZERBITZUAREN PAKETEA

Gasaren Mantentze-Paketeak, baldintza espezifikoetan deskribatutako hurrengo zerbitzu independenteak barne hartzen ditu:

1. Gasaren Babes Zerbitzua: bi urtez behingo diagnostiko eta mantentze ikustaldia.
2. Gasaren Laguntza Zerbitzua: akats edo matxuren konponketa.

Gasaren Mantentze-Paketea kontratatzerakoan, Gasaren Babes Zerbitzuko bi urtez behingo diagnostiko eta mantentze ikustaldiak, urtebeteko aldizkakotasuna izango du.

BALDINTZA ESPEZIFIKOAK
GASAREN MANTENTZE ZERBITZUAREN PAKETEA

1. XEDEA

Baldintza Espezifiko hauen xedea da IBERDROLA CLIENTES SAUren (hemendik aurrera, IBERDROLA) Baldintza Partikularretan adierazten den Gasaren Mantentze Zerbitzuaren Paketea, Baldintza Partikularretan adierazten dena, osatzen duten gas naturalaren instalazio eta gailuak mantentzeko eta konpontzeko zerbitzuak deskribatzea.

1.1. Estaldura:

1.1.1. Gasaren mantentze-zerbitzua:

Diagnostiko eta mantentze bisita barne, bi urteko periodikotasunarekin. Gasaren mantentze-pakete barruko Gasaren babesa zerbitzua kontratatzen den kasuetan, bisiten periodikotasuna urterokoa izango da.

a) Gasaren banakako instalazio hartzailea, lan hauekin: estankotasuna probatu, presioak egiaztatu, lokalaren aireztapena berrikusi, ainguraketak, beste hodiekiko distantzia, kolpeak, konexio malguak eta ageriko tutuen akatsak bilatu.

b) 70 kW baino gutxiagoko potentzia duten gas-aparatuak: ur-berogailuak, galdarak eta egosteko etxeko aparatuak (gas bidezko bitrozeramika-sukaldeak izan ezik). Honako lan hauek egingo dira, aparatu mota bakoitzaren beharren arabera: martxan jarri eta ondo funtzionatzen duela egiaztatu, estankotasuna probatu, errekuntza-produktuak aztertu eta giroko COa neurtu.

c) Berokuntza-zirkuitu hidraulikoa; honako lan hauek egingo dira: ageriko zirkuitua berrikusi, eta, zehatzago, estankotasuna probatu, giltzak, purgagailuak eta balbulak egiaztatu eta berogailuak purgatu, beharrezkoa bada.

1.1.2. Gasaren Laguntza Zerbitzua:

Puntuan aipatutako elementuen okerren edo matxuren konponketa barne, eskulanaren kosturik gabe, gehienez 3 orduraino, baita materialen kostua ere, 50€-raino. Zerbitzuaren estalduran bi konponketa baino ez dira sartzen indarrean dagoen urtebeteko epealdi bakoitzean. Behin bi konponketak eginda BEZEROAk beste konponketa bat eskatzen badu, jakinaraziko zaio bezeroari Gasaren Arreta Zerbitzuak ez duela hori estaliko eta osorik kobratuko zaiola, ematen zaion aurrekontuaren arabera, eskulanean edo materialetan inolako deskonturik izateko eskubiderik gabe. Joan-etorria doakoa izango da kasu guztietan.

1.2. Salbuespenak.- Gasaren Mantentze Zerbitzuaren Paketetik kanpo geratuko dira:

- IBERDROLA enpresakoak ez direnek egindako ikuskatzeak, laguntzak edo konponketak, eta horiek eragin dezaketen kalte oro.
- Elektrizitate- edo gas-enpresa banatzaileen elementu propioetako matxurak, konponketa haien ardura baldin bada.
- Iberdrolak edo Iberdrolak akreditatutako teknikariek eman ez dituzten elementuen instalazioa.
- 1.1.1 puntuan zehaztu gabe dauden gas-aparatuetatik kanpoko termostatoak, kontrol-sistemak edo beste elementu batzuk.
- Akats edo matxuren zuzenketa, baldin eta gas-instalazio akastun batek eragindakoak badira, edo gas-instalazioan eta/edo -aparatuetan egindako aldaketa edo nabarmentzeko moduko eraldaketen ondoriozkoak badira, betiere aldaketa horiek ez baditu IBERDROLAk egin.
- BEZEROAk 1.1.1. atalean aipaturiko instalazioak axolagabeki, behar ez bezala edo asmo txarrez erabiltzeagatik sortutako akats edo matxuren konponketa.
- Ikusi edo atzitu ezin diren instalazioaren elementu, aparatu eta/edo atalak, altzariren bat bertan jarrita egoteagatik, lokalaren egituragatik zein beste gauza batzuek oztopatzeagatik. Barne sartuko dira etxebizitzatik edo lokaletik kanpo instalatutako ekipamenduak, haien kokapena dela-eta deskribatutako probak egiteko unean eskuraezin geratu direnak eta behar bezalako hartuneak ez dituztenak.
- Kontratu honetan aipatzen diren elementuen ordezkapena edo hobekuntza, baita ezarri beharreko araudian egindako aldaketek eragindakoak badira ere.
- 70 kW edo gehiagoko potentzia duten gas-aparatuak dituzten instalazioak, gas bidezko bitrozeramika-sukaldeak edo/eta ur-berogailuak, galdarak edo egosteko etxetresnak ez diren aparatuak, baita merkataritza edo industriarako erabiltzen direnak ere.
- Ez da 10 urte baino gehiagoko gas-aparatuen konponketa bermatzen, ezta erkidegoko instalazio baten parte diren berokuntza-instalazio hidraulikoena ere.
- Ez dira sartzen kontratuak estalitako elementuek zein haien funtzionamendu okerrak eragindako kalteak; pertsonengan eragindako kalteak eta kalte materialak, behar bezala ez erabiltzeagatik edo ongi ez mantentzeagatik sortu badira; hirugarrenei eragindako kalteak, baita instalazioaren edozein atal izoztek, suteek, uholdeek edo bestelako hondamendiek sortutakoak ere.
- IBERDROLA ez da izango greba, matxinada, muturreko fenomeno meteorologiko eta halako ezinbesteko kasuetan gerta litezkeen atzerapenen edo gabealdien erantzule.

2. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK:

IBERDROLA-k baldintza hauei jarraikiz emango ditu Gasaren mantentze-paketean sartutako zerbitzuak:

- Diagnostikoa egiteko urteroko bisitak IBERDROLAren prozedurei egokituko zaizkie, eta IBERDROLAk ezarritako ibilbide eta denboren arabera egingo dira, BEZEROArekin behar bezalako aurrerapenaz koordinatuta.
- Gasaren Laguntza Zerbitzua kontratatzen den unetik 15 egun naturaleko gabealdia izango du
- BEZEROAk IBERDROLAko langileei Gasaren Mantentze Zerbitzuaren Paketea emateko beharrezkoak diren lanak egitea ahalbidetuko die. Bereziki, eta modu ez-mugatzailean, BEZEROAk zerbitzu honen xede diren instalazio eta ekipamenduetara sartzea ahalbidetuko die, baita IBERDROLAri une oro beharrezkoak diren instalazio-, aldaketa- eta mantentze-eragiketak egiteko harremanetarako datuak eman eta eguneratu ere. Bezeroak baldintza hori urratzea kontratua bertan behera uzteko nahikoa arrazoi izan daiteke.
- BEZEROAren ardura izango da IBERDROLAri jakinarazitako matxura-abisuak egoki eta modu justifikatuan erabiltzea.
- Kasuan-kasuan, bisita egin izanaren edo matxura zuzendu izanaren txostena emango zaio BEZEROARI. Bertan, antzemandako arazoak eta proposatutako edo egindako zuzenketak azalduko dira.
- Gutxienez, sei hilabeteko bermea eskainiko da egiten diren konponketa guztietan, konponketa amaitutako egunetik hasita.
- Gasaren Mantentze-paketean sartutako zerbitzuak Baldintza Partikularretan adierazten den etxebizitzan kokatutako instalazioei eta ekipamenduei dagokie. Hori horrela, BEZEROAK, etxez aldatuz gero, ezin izango du kontratua etxebizitza berrira aldatu, bai ordea etxebizitza berrian bizi denaren izenera pasatu, aurrez IBERDROLAri jakinaraziz.
- Zerbitzu honen barruan programatutako bisitak egin izanak ez du esan nahi, 919/2006 Errege Dekretuan agindutakoari jarraikiz, gas-hornikuntzaren enpresa banatzaileak egin behar dituen aldian aldiko ikuskatzeak egin behar ez direnik.
- IBERDROLAk instalazioen eta ekipamenduen matxurei, gehienez ere, 24 orduko epean erantzungo die. Urteko 365 egunetan emango da arreta, 08:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegi jarraituan.
- IBERDROLAk eskubidea du kontratu hau bertan behera uzteko, berak kontrolatu ezinezko arrazoiak direla eta ezin badu zerbitzua ematea ziurtatu; esate baterako, honako arrazoi hauengatik: gunea arriskutsua izatea, IBERDROLAko langileek jasandako edozein eratako erasoak, etxebizitzak osasungarritasun baldintza txarrak izatea, BEZEROak behin eta berriz uko egitea zigilatu behar den instalazio bat zigilatzeari edo urteroko mantentze-ikuskaritza jasotzeari...
- IBERDROLAk bezeroari eskatu ahalko dio boluntarioki barneko kalitate-kontrolak egiten laguntzeko. Kontrol horiek horretarako baimena duten langileek egingo dituzte beti.

3. ERANTZUKIZUNAK ETA SALBUESPENAK

3.1. IBERDROLA kontratu honen xede diren lanak ongi egitearen erantzule besterik ez da izango. Bereziki, enpresak ez du erantzukizunik edukiko kasu hauetan:

- BEZEROAk instalazioa behar bezala ez erabiltzeagatik edo ongi ez mantentzeagatik pertsonengan eragindako kalteak edo kalte materialak.
- Edozein gailuri edo haren funtzionamenduari eragindako kalteak, ez badira gailuak berak eragindakoak.
- Zerbitzuan sartzen diren gailuek hirugarrenei kalteak eragiten dizkietenean.

3.2 Aldeek hitzartu dute ezinbesteko eta ezusteko kasuetan biak ala biak erantzukizun orotatik libratuko direla.

4. ZERBITZUAREN IRAUPENA, BERRITZEA ETA BAJA

4.1. Iraupena eta berritzea

GASAREN MANTENTZE ZERBITZUAREN PAKETEAK urtebeteko (1) iraupena du, eta automatikoki luza daiteke elkarren segidako urtebeteko epealditan, BEZEROAK epealdi bakoitza amaitu baino hamabost (15) egun lehenago aurkakorik adierazi ezean. Era berean, kontratu honi aplikatzen zaizkion eskaintza-aldaketek ez dute eraginik izango urtebeteko epealdi osoetan, zerbitzua kontratatu zenetik aurrera zenbatzen hasita, baldin eta epealdi horretan zerbitzua eten ez bada.

4.2. Baja

BEZEROAk hala erabakita GASAREN MANTETZE ZERBITZUAREN PAKETEA dagokion urtebeteko epealdi bakoitza amaitu baino lehenago uzten bada bertan behera, indarrean den eta ordaindu gabe dagoen urtebeteko epealdi osorako ezarritako prezioa ordaintzeko betebeharra izango du. Epealdi horretan zerbitzua erabiltzeko eskubidea izango du.

IBERDROLArekin hitzartutako gas naturalaz hornitzeko kontratua bertan behera uzteak ez du halabeharrez ekarriko GASAREN MANTETZE ZERBITZUAREN PAKETEAn baja hartzea, bezeroak berariaz eskatzen ez badu.

Gasaren Mantentze-paketea osatzen duten Gasaren Babesa eta Gasaren Arreta zerbitzuak batera kontratazioari kalterik gabe, bezeroak askatasunez eta edozein unetan izango du zerbitzu hauetako bat ukatzeko eskubidea. Kasu horretan beste zerbitzua indarrean mantenduko da. Kasu honetan, indarrean mantenduko den zerbitzuaren prezioa eta baldintzak, zerbitzu honi dagozkienak izango dira, modu banandua kontratatua izango balitz bezala. Gasaren Babes zerbitzuaren kasuan, bisita bi urteko periodikotasunarekin egingo da.

IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. - domicilio fiscal: C/ Tomás Redondo 1, 28033 Madrid; domicilio social: Plaza Euskadi 5, 48009 Bilbao; inscrita en el Registro Mercantil de Bizkaia, tomo 5448, folio 19, hoja BI-63981, inscripción 1ª - CIF A-95758389

SGCOM-03680